



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko urriaren 11

53 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria ematen diona. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu berezia ematen diona. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena, «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea», «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Nafarroako Gobernua Mendillorriko etorkizun administratiboari buruzko erreferendum bat egitera premiatzen duena, «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Osoko Bilkurak baztertua (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Bardeetako tiro barrutiaren iraupenari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Pilar Abadía Gauna andrea eta Carlos Fernando García Adanero, Pedro Eza Goyeneche, Félix Armañanzas Echarri eta Juan González Mateo jaunak «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartzea (13. or.).
- «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen osaketa (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Batzordeen osaketa (14. or.).
- Hezkuntza eta Kultura Batzordeak ordezkaria hautatzea Hezkuntzako Batzorde Nagusirako (17. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Legea

1996ko ekitaldian zehar, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan nabarmen gelditu da kreditu askieza "Partzuergoen kudeaketarako Transfentziak" aurrekontu-kontusailean, "Turismo-sektorearen sustapena" proiektuari dagokionean.

Horren ondorioz, behar hauei aurre egiteko kreditu-osagarria ematen da, Nafarroako Ogasun Publi-

koari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz.

1. artikulua. 45.096.782 pezeta jotzen duen kreditu-osagarria ematen da, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren beharrei aurre egiteko. Kreditu-osagarri hau 1996ko Gastuen Aurrekontuko 82210-4810-7512 kontusail, 50001 proiektu, 30330-3 lerroari, "Partzuergoen kudeaketarako Transferentziak" izenekoari aplikatuko zaio.

2. artikulua. Kreditu osagarri hau ondoren aipatzen den gastu aurrekontu-kontusailean geratzen den kredituaren kontura finantzatzeko da: 82210-7459-7512, proiektua, 50001, lerroa, 30390-7, izena, "Bertitz, Plazaola, Ekialdeko Pirinioa, Lizarra eta Erriberako Partzuergoendako Transferentziak. FEDER Programak"

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria ematen diona

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria ematen diona onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu-osagarria ematen diona

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan aurrekontuko dotazioa igotzeko premia ikusi da, hain zuzen ere aseguruari sariengatik konpentsazioei, kooperatibetako nekazaritzako produktuak biltegitatu eta eraldatzeko eraikinak

egin, handitu edota hobetzeko laguntzei aurre egin ahal izateko.

Horrenbestez, behar horiei aurre egiteko kreditu-osagarria ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik.

1. artikulua. 159.250.000 pezetako kreditu-osagarria ematen da, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko beharrei aurre egiteko. Kreditu-osagarri hori ondoko hauei aplikatuko zaie: 30000 Proiektua, "Aseguru sarien kontentsazioak" izeneko 71510-4700-7161 kontusaila, 27720-5 lerroa, 133.000.000 pezeta; 20004 Proiektua, "Dirulaguntza, kooperatibetako nekazaritzako produktuak biltegitatu eta eraldatzeko eraikinak egin, handitu eta hobetzeko" izeneko 71140-7701-7610 kontusaila, 97016-4

lerroa, 26.250.000 pezeta, denak 1996ko Gastuen Aurrekontutik.

2. artikulua. Kreditu osagarri hau ondoren aipatzen diren kontusailetan dauden kredituen kontura finantzatuko da: "L.F.A.ko korrituen hobariak" izeneko 71510-4700-7161 kontusaila, 30000 proiektua, 27710-8 lerroan, 143.250.000 pezeta; "Komertzializazio Kooperatibendako laguntzak, hondamenezko kalteak direla eta" izeneko 71510-4700-7161 kontusaila, 30000 proiektua, 27730-2 lerroa, 14.000.000 pezeta; eta "Sustapen kanpaina orokorrak" izeneko 71140-4459-7610 kontusaila, 20004 proiektua, 27510-5 lerroa, 2.000.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu berezia ematen diona

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1996ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu berezia ematen diona onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 4a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari kreditu berezia ematen diona

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan aurrekontuko dotazioa igotzeko premia ikusi da, hain zuzen ere, 1995 urte zibilean sarirako eskubidea duten aratxeendako laguntza batzuei aurre egin ahal izateko, izan ere Kontseiluaren 1996ko uztailaren 8ko 1357/96 (E.E.) Erregelamenduak behi-aziendako haragiaren sektorean merkatu amankomunen antolakuntza finkatu zuen 805/68 (E.E.E.) Erregelamenduan zehaztutako sarientzat 1996. urtean ordainketa osagarriak

ematea ezarri zuen eta aipatu Erregelamendua bera ere aldatu.

Horrenbestez, behar horiei aurre egiteko kreditu berezia ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. 46.750.000 pezetako kreditu berezia ematen da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko beharrei aurre egiteko. Kreditu berezi hori 20003 proiektuan erabiliko da "Aratxe ekoizleendako laguntza osagarriak" izeneko 71520-4809- 5313 kontusaila, 27445-1 lerroa. Laguntza horren zenbatekoa 46.750.000 pezetakoa da eta 1996ko Gastuen Aurrekontutik egingen da.

2. artikulua. Kreditu berezi horren finantzabidea ondoko aurrekontuko kontusailean dauden kredituen kargura egingen da: "L.F.A.ko korrituen hobariak" izeneko 71510- 4700-7161 kontusaila, 27710-8 lerroan, 46.750.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» Parlamentari Taldeak hurrengo Foru Lege proposamena aurkeztu du: Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Hurrengo Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea: Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena.

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamenduari eta balio igoerari mugak jartzen dizkiena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak, bere esku-men-esparruaren baitan, uztartu egin behar ditu aurrekontu-zorroztasun eta eraginkortasuna, gizarte ongizatean lortutako maila mantentzeare-

kin eta gastuaren eremu sozialeko alderdi solidario eta aurrerazaleak indartzearekin.

Azken aldian, zenbait neurri hartu dira Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen esparruan. Horien artean, garrantzitsuak dira jubilatu, alargun eta umezurtzen gutxienezko pentsioen igoera; Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako denboraldien zenbatekoa, eskubide pasiboetarako hartzekoak eta pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu urteen kuota edo portzentaia zehaztearren; hartzeko erregulatuzailearen hobekuntza, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ezintasunengatiko jubilazio pentsioen kasuan, baita alargun edo umerzurtzendako pentsioetan ere, lan istripuak edo lanbideko eritasunak heriotza ekarritakoetan.

Hobekuntza horiek ez dituzte ordainetan elkar-tasun neurriak edo gastuari eustekoak izan esparru berean, hala nola, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan gehienezko muga edo topea ezartzea, gizarte aurreikuspen publikoen gainerako araubideetan finkatua dagoen bezala.

Hortaz, komenigarri da gehienezko tope bat jartzea pentsioen hasierako seinalamenduan 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina sortzen diren Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboetan, baita muga batzuk ere data hori baino lehen emandako pentsioen urteko balio igoeraren zenbatekoan, igoera horrek pentsioetan aipatu topea baino handiagoa den urteko balio osokoa sortzen duenean.

1. artikulua. Mugak Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetako hasierako seinalamenduan.

1. 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Administrazio Publikoetako edozein Montepioren kontura ezarten diren pentsioek ezin izanen dute urte horretan 3.844.512 pezetako zenbateko osoa gainditu urteko kalkuluan, non ez den zifra hori

aipatu ondorioekin eguneratzen 1997ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

2. Titular batek aldi berean baldin badu eskubidea Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsio baterako eta beste pentsio publiko baterako edo gehiagorako, haien guztien hasierako seinalamenduaren ondorioz jaso beharreko zenbatekoa, osotara, aurreko idazatian ezarritako muga berberei egonen da loturik.

Horretarako, Nafarroako Administrazio Publikoetako pentsioaren hasierako seinalamendua egiteko organo eskuduna harremanetan jarriko da beste Administrazioetakoekin, lehenik eta behin, aipatu pentsio publiko bakoitzaren osoko zenbatekoa zehazteko, izan ere, haien baturak 1997ko ekitaldiko gehienezko topea gainditzen badu proportzionalki murriztuko baitira, zein bere arautegiaren arabera, soberakina xurgatu arte, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

Beste Administrazio Publikoetako aplikatzeko arautegiak biderik uzten ez badu pentsioa proportzionalki murrizteko, Nafarroako Administrazio Publikoetako organo eskudunak kendu edo gutxituko du onuradunari Montepioren kargura dagoen pentsioaren osoko zenbatekoa, titularraren eskubidekoak diren pentsioen baturak 1997ko ekitaldiko gehienezko topea zenbatean gainditu, horrenbesteko zenbatekoa xurgatzeko behar dena, alegia, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

3. Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsio baten hasierako seinalamendua egiten denean beste pentsio publiko bat edo gehiago jasotzen ari denaren alde, eta haien guztien baturak, aipatu seinalamenduarena barne dela, 1997ko ekitaldiko gehienezko topea gainditzen badu, artikuluko honetako 1. puntuan ezarritakoari jarraituz, artikuluko bereko 2. puntuan ezarritako prozedura beteko da, haien baturak aipatu muga zenbatean gainditu, haren kopurua xurgatzeko.

4. Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsio baten hasierako seinalamendua egiten duen organo eskudunak ez badaki zenbatekoak diren edo zer nolakoak diren pentsionistaren gainerako pentsioak, behin-behinekoz egiten da seinalamendu hori harik eta behar diren frogak erakutsi arte. Behin-behineko seinalamenduak behin betikoz erregularizatutakoan, titularra behartua egonen da bidegabe jasotakoa itzultzera, hurrengo hilabetekoetan nahi izanez gero.

5. Pentsio publiko bat baino gehiago direnean hasierako seinalamenduak aldi behin berrikusi edo ikuskatuko dira.

2. artikulua. Pentsioen balio igoeraren muga Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioek ez dute balioa handituko 1997an haien zenbateko osokoa, urtekoa, titularrak beste pentsio publikoetatik jasotzen duen urteko zenbateko osokoari gehiturik 1997ko hasierako seinalamenduetarako gehienezko topea baino handiagoa bada, Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Eguneratzeko eskubidea izanik, Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioen 1997ko balio igoeraren ondorioz urteko balio osokoa ez da 1997ko hasierako seinalamenduetarako ateratzen den gehienezko topea baino handiagoa izanen, Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiago jasotzen dituen kasuetan, haien guztien urteko balio osokoen batura, balioa handitu behar dutenak handituta, ez da aurreko idazatian aipatu gehienezko topea baino handiagoa izanen. Gainditzen badu, igoeraren zenbatekoa proportzionalki gutxituko da likido horren gaineko soberakina xurgatu arte.

Horretarako, Nafarroako Administrazio Publikoetan bere klase pasiboen pentsioen balioa igozteko eskudunak diren organoek beren karguko pentsioen urteko gehienezko muga zehaztuko dute. Muga hori zifra bat izanen da, entitatearen karguko pentsioak edo pentsioek titularrak jasotzen dituen pentsio publiko guztiekin duten proportzio bera izanen duena 1997ko ekitaldirako ateratzen den gehienezko topearekin, Foru Lege honetako 1. artikuluko 1. puntuan ezarritakoari jarraituz.

Muga hori lortzeko formula hau aplikatuko da:

$$\text{MUGA} = \frac{\text{Gehienezko Igo beharreko pentsioa}}{\text{Titularrak jasotako pentsioen osoko zenbatekoa (igo beharrekoa barne)}} \times \text{topea}$$

4. Pentsioaren balioa igotzeko eskumena duen Nafarroako Administrazio Publikoetako organoak ezin badu, modu frogagarrian, onuradunak jasotzen dituen beste pentsio publikoen zenbatekoa egiaztatu, behin-behinekoa izanen da balio igoera, frogatik egiaztatzen ahal diren arte. Behin betiko erregularizazioak pentsioaren titularra bidegabe jasotakoa itzultzera behartuko du, halakorik baldin bada, hurrengo hilabetekoetan kargu nahi izanez gero.

Dena den, pentsio publiko bat baino gehiago direnean, igotako balioak berrikusi edo ikuskatuko dira aldiaren behin.

3. artikulua. Aurreko mugetatik salbuetsitako pentsioak.

Nafarroako Administrazio Publikoetako klase pasiboen pentsioetan hasierako seinalamendu eta balio igoeraren mugei buruzko arauak, aurreko artikuluetan bildutakoak, aplikatzeko, ez dira kontutan hartuko ekintza terroristen ondoriozko pentsio bereziak, ezta gero batean arautegiak izaera orokorrez ezar dezakeen beste edozein pentsio publiko ere.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrrik gabe geratzen dira Foru Lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko arau guztiak.

Azken Xedapenak

Lehendabizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren arauak eman ditzan Foru Lege hau garatzeko.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, urriaren 7an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek hurrengo Foru Lege proposamena aurkeztu dute: Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea:

Bigarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Urbasako eta Andiako mendiek naturgune bat osatzen dute, geologia, biologia, ekologia, esteti-

ka, paisaje, arkeologia eta soziokultura aldetik balio multzo zabal batez hornitua.

Geologia aldetik, bi mendiek kararrizko mazizo zabal bat osatzen dute, morfoegitura bereziak dituen Pirinio-Kantauriko eremuan. Faktore bioklimatikoek karst zabalean menderen mende egindako lanak paisaje mineral berezi bat taxutu dute eta, barrenetik, tamaina gaitzeko akuifero bat, interesgarria oso hurbileko populazio guneetako giza hornidurarako, Iruñea eta horren ingurunea barne. Horri zoru podsolidoen berezitasun edafologikoa erantsi behar zaio, bakarra baita Galiziakoekin batera penintsularen eremuan.

Biologiaren ikuspegitik, mendi horietan biltzen dira erregio eurosiberiar-atlantiarreko eta mediterraniar iberiarreko bioaniztasunaren elementu biogeografiko endemiko bereizgarriak. Adierazgarri aipagarrienen artean, ugatza, uhandre alpetarra eta bertako landareen zenbait taxon daude: *Scrophularia crithmifolia*, burundana subespezia, *Cochlearia aragonensis*, navarrana subespezia, *Genista eliasennenii*, *Arenaria vitoriana*, *Lathyrus vivanii*, *Narcissus varduliensis* eta *Dryopteris cartusiana*.

Ekologia aldetik, mendi hauetan Europako Elkartearen intereseko habitatak daude, hala deklaratu baitaude habitat naturalak eta basa fauna eta flora zaintzeko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan. Horien artean, interes berezia dute pagadi azidofi- loek, baso horiei lotutako txilardiek eta soilune eta harkaitzetako larreek.

Estetika aldetik, lurralde hori Nafarroa hezeko eta trantsizioko paisaje adierazgarrienetako bat da, edertasun natural handikoa, mendez mende oihan eta larreen erabileraren bitartez areagotu dena, sistema erdinatural orekatu harmoniosuak sortarazi baititu.

Ondare arkeologiko aberatsa gaur arte iraun duen antzinako artzain kulturaren lekukoa da, duen garrantzi historikoa oraindik aitortzekoa badu ere.

Ezin da ahantzi Urbasako eta Andiako mendiak antzina-antzinako ondare historikoa direla Nafarroa osoarentzat. Horren administrazioa eta gestioa, alde batetik, Koroaren eta, ondoren, egungo Nafarroako Gobernura arte, foru erakundeen lanari esker etorri zaigu, eta, bestetik, Ameskoako Limitaciones mendiko Administrazio Batzarreari esker. Mendez mende iraun duen tradiziozko entitatea da hori, Lege honek aitortu eta babesten dizkion ahalmen historikoak dituen, Nafarroako ohiturazko Zuzenbidearen muina delako.

Hain da oparoa bi mendi horietan bildutako balio natural anitza, ezen foru erakunde publikoen babes juridikoa behar baitute, naturgunearen kontserbazioa eta iraupena bermatuko badira. Horiek baliabide naturalen erabilera ordenatuarekin bateragarriak dira sektore eta eragile sozialen bitartez.

Gehiago ere bada: lurralde hori babesteko arrazoi estrategikoa dago, erreserba natural horri darion uraren kalitatea segurtatzen delako, izan ere, haren erabilerak mendien muga fisikoetatik askoz haratago egiten baitu, nafar populazioaren gehiengo zabal batengana hedatzeko, hiriburuan eta ingurunean bizi dena ere hartuz.

Urbasako eta Andiako mendiak Natur Parke deklaratzeko figura juridiko egokiena da, ez bakarrik balore horiek edo uraren nahiz ekosistemen kontserbazioa identifikatzeko, baita plangintza eta gestio integral koherenteak bermatzeko, egungo eskaerak eta sor daitezkeenak bat etor daitez.

Natur Parkearen bitartez, gainera, gizarte nafar guztiak eredugarritzat du aurreko belaunaldiak egindako probetxamendu ordenatu eta arrazionala, gaur egun hain ohikoa dugun garapen jasangarriaren teoria ospetsua gauzatu eta aplikatu baitute aspalditik.

Gainera, Natur Parkea da eskualdeko biztanleek (Limitacionesko Batzarrea, Burunda eta Arañazko komunitatea...) mendez mende garatu duten erabilera eta gestio formula tradizionalak hobekien babesten dituen botere publikoen deklarazioa. Halaber, Natur Parkeak bultzatu eta handitzen du tradiziozko eta artisautzako sektoreek

beraiek sortutako produktuen berezitasunagatiko balio ekonomikoa eta,aldi berean, erakargunea da kanpoko baliabide ekonomikoentzat mendi ingurura eta hirigune hurbilenetara gerturatzeko, eskualdeko garapen sozioekonomikorako dakarren onuraz gain.

Natur Parkeak 21.408 hektarea hartzen ditu denetara, honela banaturik: 4.700 hektarea Andia-ko mendian, 11.399 hektarea Urbasako mendian, Nafarroako Gobernuaren esku, 5.190 hektarea Limitaciones mendian, Erauldik eta Etxabarritik banandutako zatia barne dela, eta 119 hektarea Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban.

Natur Parkea deklaratzeko, eremuko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana prestatu eta onetsi behar zen, eta hori 1996ko uztailaren 1ean onetsitako Foru Dekretuaren bidez egin zen.

Bai deklarazioan, bai Natur Parkearen kudeaketan, kontutan hartu dira, errespetatu eta babestu Limitaciones mendiko Batzarrearen eskubide historikoak, tradiziozko Batasun administratiboa denez gero, baita Burunda eta Arañazko Komunitatearen eta Deierriko Udalaren eskubideak ere, Planaren arautegian propio bildutakoak, haren parte baitira aurrerantzean.

Limitaciones Mendiko Batzarreak kudeatuko du Natur Parkea bere lurraldean, eta Nafarroako Gobernuak gainerakoan, bi lurraldeok kudeatzeko mendez mende erabili diren formulei jarraipena emanaz.

Urbasako eta Andiako mendiak kudeatzeko partaidetza sozialerako, Nafarroako Gobernuak Patronatu bat sortzeko asmoa du, Foru Administrazioaren, toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, elkarte kontserbaziozaleen, eremuko nekazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako sektoreen eta zuzenean interesatuta egon daitezkeen beste sektoreen ordezkariak osaturik, erregelamendu bidez ezarriko den modu eta osaketarekin. Horrekin nafar guztien ondarea den eta Nafarroako Foru Komunitateak bere-berea duen naturgune honen gestio integrala, partaide bidezkoa, sendotzen da.

1. artikulua. Natur Parke deklaratzeko da Urbasako eta Andiako mendiak, Limitaciones mendiak eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserbak (RN-14) osatutako eremua, muga hauek dituen:

– Iparraldeko muga: Urbasako eta Andiako mendien muga Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Ergoien, Uhar-te-Arakil, Irañeta eta Arakileko udal mugapeekin.

– Ekialdeko muga: Andiako mendiaren muga Ollaran eta Goñibarko udal dermioekin.

– Hegoaldeko muga, ekialdetik mendebaldera: Urbasako eta Andiako mendien muga Gesalatz, Lezaun eta Abartzuzako udal dermioekin, non Urbasako mendiaren muga utzi eta Ameskoako Limitacionesen hegoaldeko mugari jarraitzen baitio, Ameskoabarren, Eulate, Aranaratxe eta Larranonako dermioekin muga eginez, Araba eta Nafarroa arteko muga administratiboraino.

– Mendebaldeko muga: Araba eta Nafarroa arteko muga.

2. artikulua. Natur Baliabideak Antolatzeko Planak, Nafarroako Gobernuak 1996ko uztailaren 1eko 267/1996 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, arautuko du Urbasako eta Andiako Natur Parkea, baita hark izan ditzakeen aldatetek ere.

3. artikulua. Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarreak bere esku izaten jarraituko du Urbasako Limitaciones mendia erabili eta kudeatzeko ahalmen historikoak, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari eta Nafarroako naturguneei buruzko legeria orokorraren arabera jardunez.

4. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokio Natur Parkearen kudeaketa Urbasako eta Andiako mendietan eta Urederra ibaiaren iturburuko Natur Erreserban, Limitaciones mendiaren lurraldean izan ezik.

2. Limitaciones mendiko Batzarreari dagokio Natur Parkearen kudeaketa Limitaciones mendiaren lurraldean eta, kasuan-kasuan, Ameskoako udalei.

Hori dela eta, Limitaciones mendiko Batzarrea izanen da Urbasako eta Andiako Natur Parkea kudeatuko duen organo administratiboa Limitaciones mendiaren lurraldean. Limitacionesko Batzarreak izanen ditu egungo antolamendu juridikoak Natur Parkeetako gestio organoei ematen dizkien ahalmen eta eskumen administratibo guztiak.

3. Limitaciones mendian egin daitezkeen jarduera eta erabilerak Limitaciones mendiko Batzarreak onetsitako Ordenantzei lotuko zaizkie, ordenantzak aurkeztu eta bi hilabeteko epean Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak haien legezketasunari buruzko txostena eman ondoren.

Limitaciones mendiko Ordenantzak espazioak kontserbatzeko legediak Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzentzaileei emandako izaera eta ondorioak izanen dituzte.

4. Nafarroako Gobernuaren eta Limitacionesko Batzarrearen arteko lankidetzeta eta kooperaziorako, bi erakundeek haien ordezkariak osatutako

lankidetzeta organoa sortu ahalko dute, bien adostasunarekin.

5. artikulua. 1. Kudeaketan parte hartu eta laguntzeko organo gisa, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Urbasako eta Andiako Natur Parkearen barreneko eremuan, Patronatu bat sortuko du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria edo bere ordezkari agintaria buru dela, erregelamendu bidez ezarriko diren eginkizun eta osaketarekin.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, toki entitateen, Limitaciones mendiko Batzarrearen, elkarte ekologisten, eskualdeko nakazaritza, abeltzaintza eta oihangintzako sektoreen eta zuzenean interesa izan dezaketen beste sektore batzuen ordezkariak osatuko dute Patronatua.

Xedapen Iragankorra

1. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak behar diren ekimenak bultzatuko ditu Urbasako eta Andiako Natur Parkeko Patronatua eratu dadin, urtebetean gehienez ere.

2. Natur Baliabideak Antolatzeko Plana garatzeko eta parkearen esparruan, Limitaciones mendia salbu, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzentzailea prestatuko du urte betean, eta Nafarroako Gobernuak onetsiko, Patronatuak txostena eman ondoren.

3. Limitaciones mendiko Batzarreak bere ordenantzak berrikusiko ditu bi urteko epean gehienez ere, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik. Epe hori Ordenantzen proiektua Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan aurkeztu gabe iraganez gero, horrek errekerimendua egingen dio Batzarreari hiru hilabeteko epean aurkez dezan, eta hori egin gabe iraganez gero, Departamentuak subrogatuko du haren erredakzioa eta Nafarroako Gobernuari igorriko dizkio Ordenantzak, onets ditzan.

Azken Xedapenak

Lehendabizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren xedapenak eman ditzan Foru Lege hau garatu eta betearazteko.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernua Mendillorriko etorkizun administratiboari buruzko erreferendum bat egitera premiatzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUA

Biltzarrak, 1996ko urriaren 3an egindako Osoko Bilkuran, hurrengo mozioa baztertu zuen: Nafarroako Gobernua Mendillorriko etorkizun administratiboari buruzko erreferendum bat egitera premiatzen duena. Mozio hori 1996ko ekaina-

ren 28ko 42 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko urriaren 4a.

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Bardeetako tiro barrutiaren iraupenari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 7an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Bardeetako tiro barrutiaren iraupenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeari atxikirik Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion:

Nafarroako Parlamentuak behin eta berriro adierazi du Bardeetako tiro barrutiaren aurka dagoela, horrek ukituriko herrien, udal anitzen eta Komunitatearen beraren iritziarekin bat etorri delarik.

Berriki jakinarazi da José M^a Aznar Gobernuak Lehendakari jaunak, Ingurugiro Ministerioak proposaturik, Ciudad Realgo Anchurasen tiro zelai bat sortzeko egitasmoa bertan behera uztea erabaki duela. Hori dela eta eutsi egin beharko zaio, aukera bakar gisa, Bardeetako tiro barrutiari, gaur egungo kontratua luzatzera behartuko delarik, baterako ustiatzaileei dagokien jabari erabilgarria desjabetzera barne.

Hori dela eta interesgarritzat jotzen da jakitea Nafarroako Gobernuak erabaki horren berri izan duen eta neurriren bat hartu edo hartuko duen Bardeek nafarrik gehienek begi txarrez ikusten duten tiro barrutia izaten segitzea saihestearren.

Iruñean, 1996ko irailaren 30ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Soto del Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Soto de Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko irailaren 20ko 50 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko urriaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Martín Landa Marco Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida Parlamentari Taldeari atxikirik Foru Parlamentari jaunak Soto de Ramalete izeneko Natur Erreserba ukitu duten eta Ebro ibaiertzean egin diren obrei buruzko galderari dagokionez, erantzun hau igortzeko ohorea dauka:

1. Ea egia ote den obra horiek Nafarroako legeen aurkakoak izateaz gain, bestelako legeen

aurkakoak ere badirela jendaurreko erakusketan jarri ez direlako eta balizko ukitutakoek alegazioak egiteko epea ireki ez delako... eta abar. Hau honela bada, zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Departamentuak egin dituen jarduketak?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez daki zein izan den Confederación Hidrográfica del Ebro delakoak Ebro ibaiertzean, Tuterako udal dermioan, eginiko obrak bideratu eta onesteko erabili duen administrazio jardunbidea. Izan ere, ur jabari publikoa ukitzen dutenean, Estatuko ur legeriari jarraikiz bideratu beharko lirateke obra horiek. Beti ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez ditu aurretik obra horiek onetsi, ez Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeari jarraikiz, ez Nafarroako ingurugiroari buruzko berezko legeriari jarraikiz ere.

Horregatik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak gerora jardun du administrazio eginkizunetan, obrak hasiak zirenean.

2. Zer neurri hartu du edo hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak agindutako legearen aurkako obra horiek sortu dituzten kalteak ezaba daitezen eta egoera lehenagora dadin?

3. Zer jarduketa egin du edo egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak Nafarroak, Ingurugiro arloan bere dituen eskumenak erabiliz, bere buruari eman dizkion legeak betearazteko?

Ingurugiro Zuzendari Nagusiak, irailaren 16ko 2402/1996 Ebazpenaren bidez, Confederación Hidrográfica del Ebro delakoa Soto del Ramaletoko Natur Erreserban eta haren inguruko babes eremuan egiten ari zen lanak berehala bertan behera utz zitezen agindu zuen, jarduketa horiek

aginduzkoa den Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren administrazio baimena ez zeukatelako, Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko 8, 9, 11 eta 18 artikuluetan eskaturikoa.

Ingurugiro Zuzendari Nagusiak, Ebazpen horretan, honako hau agindu zion Confederación Hidrográfica del Ebro delakoari: hilabeteko epean aurkez ziezaiola Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari Natur Erreserban aldatutako errealitate fisikoa lehenagoratzeko proiektua, gero Confederación Hidrográfica del Ebro delakoaren kontura betearazi beharrekoa, ekainaren 17ko Foru Legeko 30.1.B) artikulua betetzeko asmoz.

Halaber, Ebazpenean Confederación Hidrográfica del Ebro delakoa premiatzen da, Tuterako Udalaren bidez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren administrazio baimena eskatzera, obra horiek egiteko, baimentzekoak baldin badira, gehienez ere bi hilabeteko epean, Natur Erreserbaren inguruko babes eremuari dagokionez, ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko 30.1.A) artikuluekin bat.

Ebazpena Confederación Hidrográfica del Ebro delakoari, Ingurugiro Zaintzako langileei, Goardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuari eta Tuterako Udalari jakinarazi zaie, behar diren ondorioak sor ditzan.

Horrez gain, Ingurugiroko Zaintzak obrak egiten ari diren alderdia egunero bisitatzen du, obrak benetan bertan behera utzi direla egiaztatzeko.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan xedaturikoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1996ko irailaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Pilar Abadía Gauna andrea eta Carlos Fernando García Adanero, Pedro Eza Goyeneche, Félix Armañanzas Echarri eta Juan González Mateo jaunak «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 7an egindako bilkuran, Pilar Abadía Gauna andrea eta Carlos Fernando García Adanero, Pedro Eza Goyeneche, Félix Armañanzas Echarri eta Juan González Mateo jaunak «Unión

del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartzearaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldearen osaketa

Pilar Abadía Gauna andrea eta Carlos Fernando García Adanero, Pedro Eza Goyeneche, Félix Armañanzas Echarri eta Juan González Mateo jaunak «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldean sartu berri direlarik, Parlamentari Taldea ondoren aipatzen diren Foru parlamentariak osatzen dute:

Sanz Sesma, Miguel

Gurrea Induráin, Rafael

Jiménez Pérez, Juan Ramón

Salcedo Izu, Joaquín

Iturriagoitia Ripoll, Nuria

Jaime Irujo, Alfredo

Castellano De Gastón, Gaspar

Catalán Higuera, Alberto

Salanueva Murguialday, Amelia

Morrás Iturmendi, Francisco Javier

Urdiáin Martínez, José Ramón

Viñes Rueda, José Javier

García Adanero, Carlos Fernando

Abadía Gauna, Pilar

Eza Goyeneche, Pedro

Armañanzas Echarri, Félix

González Mateo, Juan

Iruñean, 1996ko urriaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuko Batzordeen osaketa**BATZORDE IRAUNKORRA****MAHAIA**

Lehendakaria
 M^a Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
 Lehen Lehendakariordea
 M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)
 Bigarren Lehendakariordea
 Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
 Lehen Idazkaria
 Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)
 Bigarren Idazkaria
 Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Miguel Sanz Sesma jauna (UPN)
 Manuel López Mazuelas jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
 Félix M^a Taberna Monzón jauna (EB-IU)
 Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
 Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

Ohiko Batzordeak:**FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
 Lehendakariordea
 Gaspar Castellano de Gastón jauna (UPN)
 Idazkaria
 Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
 Fco. Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)
 Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
 José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
 Aladino Colín Rodríguez jauna (SPN)
 Manuel López Mazuelas jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
 Miguel Angel Larráyz Lezáun jauna (NDE)
 Pedro Uriz Lanz jauna (NDE)
 Félix M^a Taberna Monzón jauna (EB-IU)
 Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
 Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
 Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)

**EKONOMI, OGASUN ETA
AURREKONTU BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
 Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
 Lehendakariordea
 Nuria Iturriagoitia Ripoll andrea (UPN)
 Idazkaria
 Martín Landa Marco jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jauna (UPN)
 Juan González Mateo jauna (UPN)
 Juan Ramón Jiménez Pérez jauna (UPN)
 José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
 Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
 Manuel López Mazuelas jauna (SPN)
 José Javier Sánchez Turrillas jauna (SPN)
 Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
 Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
 José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
 Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
 Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)
 Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO
ETA BARNE BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Jesús Javier Arteaga Olleta jauna (NDE)

Lehendakariordea
Fco. Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)

Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
Gaspar Castellano de Gastón jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)
Florencio Aoiz Monreal jauna (Ezker A.)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

Lehendakariordea
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)

Idazkaria
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
M^a Asunción Apesteгуía Jaurrieta andrea (SPN)
Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Miguel Angel Larráyoз Lezáun jauna (NDE)
Pedro Uriz Lanz jauna (NDE)
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)
Xotero Etxandi Juanikotena jauna (Ezker A.)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXE-
BIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
José Javier Sánchez Turrillas jauna (SPN)

Lehendakariordea
Gaspar Castellano de Gastón jauna (UPN)

Idazkaria
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea (UPN)
Amelia Salanueva Murguialday andrea (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
Juan Cruz Alli Aranguren jauna (NDE)
Miguel Angel Larráyoз Lezáun jauna (NDE)
M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)

Lehendakariordea

Idazkaria

BATZORDEKIDEAK

Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea (UPN)
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

OSASUN BATZORDEA**MAHAIA**

Lehendakaria
Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)
Lehendakariordea

Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)
Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
M^a Asunción Apesteuguía Jaurrieta andrea (SPN)
Francisca Catalán Fabo andrea (SPN)
José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)
Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)

**HERRILAN ETA AZPIEGITURETAKO
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
M^a Asunción Apesteuguía Jaurrieta andrea (SPN)
Lehendakariordea
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)

Idazkaria

BATZORDEKIDEAK

Carlos García Adanero jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Juan Ramón Jiménez Pérez jauna (UPN)
José Javier Viñes Rueda jauna (UPN)
Ignacio Ausejo Mozún jauna (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Miguel Angel Larráyoiz Lezáun jauna (NDE)
Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)
Florencio Aoiz Monreal jauna (Ezker A.)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

**NEKAZARITZA, ABELTZAINA ETA
MENDI BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Inmaculada Matías Angulo andrea (NDE)

Lehendakariordea
Juan Ramón Jiménez Pérez jauna (UPN)

Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
Gaspar Castellano de Gastón jauna (UPN)
Carlos García Adanero jauna (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Ignacio Ausejo Mozún jauna (SPN)
Juan Andrés Platero Alda jauna (SPN)
José Javier Sánchez Turrillas jauna (SPN)
D Jesús Javier Arteaga Olleta jauna (NDE)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)
Xotero Etxandi Juanikotena jauna (Ezker A.)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

**INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA
ETA TURISMO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)

Lehendakariordea
Fco. Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)

Idazkaria
Martín Landa Marco jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)
Juan González Mateo jauna (UPN)
Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea (UPN)
Juan Ramón Jiménez Pérez jauna (UPN)
Ignacio Ausejo Mozún jauna (SPN)
Aladino Colín Rodríguez jauna (SPN)
Jesús Javier Arteaga Olleta jauna (NDE)
Luis Gerardo López Eslava jauna (NDE)
Gregorio Martínez Ezcaray jauna (NDE)
José Miguel Nuin Moreno jauna (EB-IU)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Ezker A.)
Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)
Lehendakariordea
Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)
Idazkaria
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)

BATZORDEKIDEAK

Pilar Abadía Gauna andrea (UPN)
Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)
Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN)
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
M^a Asunción Apesteguía Jaurrieta andrea (SPN)
José María Ezpeleta Martínez jauna (SPN)
Inmaculada Pinilla Baigorri andrea (SPN)
Jesús Javier Arteaga Olleta jauna (NDE)
M^a Reyes Cortaire Tirapu andrea (NDE)
Pedro Uriz Lanz jauna (NDE)
Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)
Xotero Etxandi Juanikotena jauna (Ezker A.)
Jaime Iribarren Iriarte jauna (Ezker A.)

ERREGELAMENDUKO BATZORDEA

MAHAIA

Lehendakaria
M^a Dolores Eguren Apesteguía andrea (SPN)
Lehen Lehendakariordea
M^a Rosario Villanueva Iturralde andrea (NDE)
Bigarren Lehendakariordea
Joaquín Salcedo Izu jauna (UPN)
Lehen Idazkaria
Fermín Ciáurriz Gómez jauna (EA-Askot.)
Bigarren Idazkaria
Alberto Catalán Higuera jauna (UPN)

BATZORDEKIDEAK

Félix Armañanzas Echarri jauna (UPN)
Rafael Gurra Induráin jauna (UPN)
Alfredo Jaime Irujo jauna (UPN)
Fco. Javier Morrás Iturmendi jauna (UPN)
José Ramón Urdiáin Martínez jauna (UPN)
Aladino Colín Rodríguez jauna (SPN)
Carlos Cristóbal García jauna (SPN)
Manuel López Mazuelas jauna (SPN)
Andrés Basterra Layana jauna (NDE)
M^a Reyes Cortaire Tirapu andrea (NDE)
Miguel Angel Larráyoiz Lezáun jauna (NDE)
Ion Iñaki Erro Armendáriz jauna (EB-IU)
Pablo Lorente Zapatería jauna (EB-IU)
Florencio Aoiz Monreal jauna (Ezker A.)
Adolfo Araiz Flamarique jauna (Ezker A.)
Begoña Errazti Esnal andrea (EA-Askot.)

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak ordezkaria hautatzea Hezkuntzako Batzorde Nagusirako

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 7an eginiko bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, bestak beste:

Jesús Javier Marcotegui Ros jaunak irailaren 30ean Foru Parlamentari karguari uko egin zionez, Parlamentu honetako Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Hezkuntzako Batzorde Nagusian duen ordezkaria ere delarik (95.10.27ko 14. NPAO), bidezko da ordezkari horretan ordezte.

Hori horrela, ERABAKI DA:

Lehena.- Hautagaiak aurkezteko epea irekitzea, urriaren 14an, 9:30etan, bukatuko dena.

Bigarrena.- Hautapena Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1995eko irailaren 4an (95.9.14ko 6. zk.ko NPAO) onetsirik Arauekin bat eginen dela xedatzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko urriaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--